

Bezeroekiko harremanak

Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta haziaraziko dituzue bezero horiek?

Gure gaur egungo gizartean, geroz eta pertsona gehiagok ez du nahiko denbora egunean zehar bere etxeko mahian eseri eta bazkari osasuntsu bat izateko. Horren ondorioz, normalean janari azkarra saltzen duten eraikuntzetara joaten dira. Berez, hori egitea ez da txarra, azken finean guk ere hori egiten dugulako, baina konpetentziaren janaria ez da oso osasuntsua, eta etorkizun batean oso kaltegarria izango zaigu.

Guk bilatzen ditugun bezeroak batik bat denbora asko ez duten pertsonak izango dira eta gainera gose asko dutenak.

Gure negozioa martxan jartzeko, bezero asko behar ditugu. Hauek lortzeko, hasieran gure gertutasunarekin eta gure produktuen kalitatearekin erakarriko ditugu. Gure enpresa etekinak izaten hasten denean eta arrakasta izaten hasten dugunean, interneteko mundura irikiko gara. Horretarako, pertsona batekin kontaktuan jarriko gara web orri bat martxan jartzeko. Hori oso lagungarria izango da enpresaren marka herri guztietan ezagutzeko. Ondoren, modernizatu egingo gara gure lehiakideen alturan jartzeko; hau da, autozerbitzu bat jarri eta etxeetara janaria eramateko aukera emango dugu. Gainera, gure langileak gertutasun handikoak izango dira bezeroak etxean baleude bezala sentitzeko eta baita ere laguntza pertsonal bat eskainiko dugu bezeroen dudentzako. Horrela, gure bezeroak beste bezero berriak erakarriko dituzte. Azkenik, diru asko lortzen dugunean, iragarkiak jarriko ditugu mundu osoak gure enpresa ezagutzeko.